

ZUZENeko BEHAKETA

Zuzeneko behaketaren bidez, geure aurrean agertzen diren jokabideak zuzenean erregistratuz lortu ahal izango dugu informazioa. Hainbat leku eta momentu balia ditzakegu ikasleen arteko harremanak nola ezartzen diren aztertzeko: klaseak, jolastokiak, jangela, eskolako garraioa, taldekatzeak...

Horregatik, funtsezkoa da pertsonen artean sortzen diren harremanei beste ikuspegi batetik **“begiratzea”**. Hain zuzen ere, **ikuspegi dialektiko batetik** begiratzen ikasi behar da, eta **ez ikuspegi estatiko batetik**, Ortegak dioen bezala (2015). Pertsonen arteko harremanak dinamika konplexu batean garatzen dira, eta menderatzearekin eta men egitearekin lotutako kodeak izaten dituzte batzuetan. Besteak menderatzera ohitzen denak bere ekintzak arau trukatu batekin neurtzen ikasten du, eta gero eta ikuspegi lausoagoa izan ohi du elkarrekikotasunaren eta simetriaren inguruan.

Horregatik, **kode horiek ulertzeko gaitasuna garatu behar dute hezitzaileek**, eta kodeoi behatzen ikasi, jazarpen-egoeren aurrekariak izan daitezke eta.

“Begiratzeko modu horretan” trebatuta dauden pertsonak baldin badaude, datu fidagarriak eta objektiboak lortu ahal izango ditugu: jazarpenarekin lotutako erritu jakin batzuk gertatzen diren testuingurua, tartean diren pertsonen jokabideak, eta ekintzen ezaugarriak, besteak beste. Informazio hori, kuantitatiboa ez ezik, batez ere kualitatiboa da.

Halaber, ikasle bakoitzaren **egoera sozioemozionala** eta akademikoa zein den eta ikaskideen taldean zer gertatzen den jakinda, ikasleen ebaluazio-aldi bakoitzeko arrisku- eta babes-faktoreak detektatu eta aintzat hartu ahal izango ditugu. Azken batean, irakaskuntza-lanaz ari gara argi eta garbi; hau da, zehaztu nahi dugu irakasleek zer egin behar duten ikasle guztiei garapen pertsonalarekin laguntzean oinarrituriko hezkuntza batean aurrera egin ahal izateko.

Behaketa naturalaren prozesu horretan, eta aztertu beharreko unearen eta jokabideen ezaugarriak eta nondik norakoak kontuan hartuta, beste tresna batzuk, erregistro-taulak, adierazle-taulak eta abar erabil daitezke, behaketa hori modu gidatuago batean egin ahal izateko, behaketa-esparru bateratu batzuk ezarrita. Horrela, datuen **triangulazio** egokia egin ahal izango da, eta hori behar-beharrezkoa da diagnostiko bat bermeekin emateko.